



**THE EYES OF TAMMY FAYE • AEB**

Michael Showalter (zuzendaria)  
Jessica Chastain (aktorea, ekoizlea)

# Chastain: “Antzezpenaren aldetik inoiz egin dudana lanik teknikoena izan da”

SERGIO BASURKO

Tammy Faye telebista-predikatzaile ebanjelistaren iguera, erorketa eta erredentzioaren ikuspegi intimoa kontatzen du Sail Ofizialeko lehiaketari amaiera eman dion biopic-ak. 70eko eta 80ko hamarkadetan, Tammy Faye eta bere senarrak, Jim Bakkerrek, ia ezerezetik abiarazi zuten munduko erlijio-katerik handiena, eta ospe izugarria izan zuten telebista uhinen bidez zabaltzen zituzten maitasun, onarpen eta oparotasunezko mezuei esker.

Bi orduz, *The Eyes of Tammy Faye* filmak Jessica Chastainek antzeztu duen pertsonaiari soilik erreparatu dio. 126 minutuz aktore bikaina zahartzen, gizentzen, zorabiatzen eta ia berpizten ikusten dugu, baina inoiz ez dugu sumatzen Chastain bera interpretatzen duen pertsona denik. Are gehiago, azken minutuetan, amaierako kredituetan, pertsonaiaren irudiak benetako Tammy Fayeren irudiekin nahasten direnean, ezin esplikatzeko mirari baten lekuko gara, Tammy Faye berak bere burua interpretatzen duela zin egin daiteke. Baina ez da bera. Bere atzean Chastain dago eta Chastainek Tammy Faye biziarazten du unibertsitateko ikasle zentetik gainbehera etorri zitzaion arte. Abestu, dantzatu, otoitz egin, saldu, erosi, maitatu eta, batez ere, negar egiten du.

“Ikuspuntu posible guztietatik aztertu dut Tammy-ren ibilbidea, argi ilunez eta arrakalez betetako pertsonaiantzako nire ohiko radarrarekin, eta, benetan, neskatala bat bezalako zen, errugabatasunez betea. Bere garbitasunean dena posible zela uste izan zuen”, adierazi du Chastainek.

Pixka batean pentsatzen gelditu da eta, azalpenarekin segitu du: “Tammy ez zen komunikabideek elikatzen zuten karrikatura bezalako, bere garaia aurrea hartu zion emakumea baizik. Egia da itxuragatik epaitzen duen gizarte batean bizi garela –onartzen du aktore kaliforniarrik–, eta Tammy oso zehatza eta demasekoa izan zela



Zuzendariak eta bere protagonistak elkarrekiko sintonia handia erakutsi zuten.

JORGE FUENBUENA

zentzu horretan. Horren trukean, ez zituen arauak bete. Eta, jakina, eztabaida handia sortu zuen bere inguruan, bereziki LGTBI komunitateari zion maitasunagatik. 1994an erradikala zirudien. Gaur egun gutxiengoen eskubideak onartuak izan dira nire herrialdean, beraz, bilakaera hori errazagoa izango zitzaion”.

Bestalde, Michael Showalter zuzendariak, komedian eta umorean aritua, minez eta patetismoz birsortzen du XX. mende amaierako AEBetako historiaren zati bat. Bakker senar-emazteen bitartez, Showalterrek agerian uzten ditu AEBetako gizartearen zati baten miseriak. Bidaia luze horretan, Showalterren begirada Tammy Fayerena da. Izenburuak dioen bezala, filmak bere begiei erreparatu die ondo kontatutako eta hobeto interpretatutako ibilbide bat

marratzeko. Horrek biopic sendo bat sortzen du, eta errealizadoreak gehien interesatzen zaiona nabarmentzen du: “ezinbestean uzurtzen ari den gizarte baten paradoxak eta kontraesanak”.

Eta hor sartzen da Tammy Fayeren AEBetan duen irudia. “Oso istorio amerikarra da. Predikari haiek bultzatu zuten Ronald Reagan presidentetzara iristea. Berak ere sutsuki sinesten zuen munduko herrialde onean bizi garela, ‘Jainkoak bedeinka dezala Amerika’-n. Eta errealtatea ez da horrelakoa, Donald Trumpen presidentetzak eta egungo eskuin alternatiboak erakutsi digutenez”, iritzi du Showalterrek.

Protagonista ez ezik, Chastain filmaren ekoizle ere bada: “Nire hainbat filmen estreinaldiek ez zuten harri onik izan, ziur aski protagonista femeninoek, nik gorpuztu ohi ditu-

danak, ikusleak espero zuenarekin talka egiten zutelako. Ez zait gustatzen pelikula erosoak egitea, publikoak ezpataren eta hormaren artean jartzea interesatzen zait, eztabaidak sortzea... Sinesten dut zinema egitea ekintza politiko gisa, arrazakeria edo sexu-identifikazioari buruzko eztabaida eragiteko. Beraz, norbaitek nire lanaren aurka egiteak normala dirudi”. Honez gain, teknikoki inoiz interpretatu duen lanik konplexuena eta zailena izan dela deritzo.

Ezbairik gabe, Jessica Chastain da Michael Showalterrek zuzendutako filmaren onena eta esanguratsuen. Eta aurrean antzezpen bakar eta aparta saritzea bada helburua (gizonezkoen eta emakumezkoen artean bereizketarik egin gabe), Jessica Chastain lanak argudio harrigarriak ditu antzezpenaren bikaintasuna aitortzeko.

## Blown away by Tammy Faye’s compassion and love

Flanked by director Michael Showalter, actress and producer Jessica Chastain spoke to the press yesterday after the screening of her latest film, *The Eyes of Tammy Faye* in the Official Selection. She says that she saw the documentary on Tammy by Fenton Bailey and Randy Barbato in 2012 and was blown away by her compassion and love. She realised that she only knew her from the sensationalist way that the media used to portray her, and so decided to buy the rights to film her true story. Showalter said he relished the opportunity to work with Chastain and see her in this role. Having grown up watching the Bakers on TV in the 1980s, he thought that visually it was an extraordinary story to tell. Chastain also spoke about the challenges she faced to play Tammy Faye: she worked for seven years on the role with a dialect coach because the Minnesota accent is very particular, and also had to learn to sing like her and put on a higher-pitched voice. “For sure, it’s technically the most difficult thing I’ve ever done,” she confessed. She also stressed how much she admired Tammy Faye’s consistency and authenticity: “even when she was thrown out of the church she never stopped loving and forgiving people. She was always true to what she preached.”



**149 años** de historia resumidos en la nueva etiqueta.

**KELER**  
DONOSTIA 1872



Donostia Zinemaldia  
Festival de San Sebastián  
Cerveza Oficial



Keler recomienda el consumo responsable. 6º